

## Uhaina, Frantziako surf txapelketan aritu diren 4 ikasleak ezinean.

2017/04/03

Eguraldia izan da Frantzian ospatzen den Uhaina surf txapelketako gertakaririk nabarmenena.

Urtero antolatzen den txapelketa hau, larunbat ospatzekoa zen, baina ostiralean bertan egin genuen bileran, eguraldi txarra zela eta txapelketa igandera atzeratzea eta hondartzaz aldatzea erabaki zutela esan ziguten,

Horrela, larunbatean entrenatzeko eguna hartu genuen, eguraldia ikusita Hendayara joatea erabaki genuelarik.

Igandean, goizeko 9:00 La Barre hondartzan elkartu ziren partaide denak, oraindik egoera gogorrean zegoen itsasoan surfeatzeko asmoarekin

Gure ikasleek egoera hoietan gogoz saiatu baziren ere, Gorka Aguinagak bodyboardeko modalitatean bakarrik lortu zuen finalera pasatzea. Finalean, laugarren bukatu zuen, parte hartzen zegoelarik ezinbestekoa den aleta bat galdu eta uretan jarraitu eta gero.

Eskerrik asko Gorka Aguinaga, Iker Zumeta, Iñaki Urrutikoetxea eta Unai Zubizarreta gure ikasleei eta Uhainako antolatzaileei.

Argazki gehiago [facebook-eko orrialdean](#).

